A1343



Altza

# Altza-Press, gazteen aldizkaria

Larraitz Garmendia [tfnoa.: 391267]

altzako Kultur etxean urtean zehar prentsa ikastaroetan egin den lana argitaratuko dute. Altza-Press izena duen argitalpenean 20 pertsonek Altzako errealitatea eta auzoan aurkitu daitezkeen zerbitzuak azaldu dituzte.

44 orriko aldizkarian parte hartu duten gazteek dioten bezala,*«eskutan daukazuna, Altzatik gazte talde batek eginiko lana da. Casares kultur etxeko prentsa ikastaroaren inguruan bilduta, jaso eta sortutako lanak atsegin handiz aurkezten dizkizuegu»*.

Aldizkariaren edukia bi zatitan bana daiteke. Lehenik eta behin Altzako gaiak jorratu dira: aisia, hezkuntza, kirola, drogomenpekotasuna, musika, gizarte gaiak... Eta bigarrenik, aldizkaria idatzi dutenek beren kezkak kaleratzeko aukera izan dute. Aldizkariaren bigarren atal honetako gaiak laburragoak dira. Bigarren atal honetan aurki daitezke besteak beste tarota, jaiak, turismo alternatiboari buruzko erreportaia txiki bat, oporretara joateko uharte erakargarriak...

Altza-Press aldizkariak ez du irakurketarako ordenik, hau da, edozein lekutatik hasi eta artikuluak banaka irakur daitezke. Aldizkaria Casares kultur etxean aurkituko dugu hemendik gutxira eta dohain banatuko da, noski.


Altzako gaiak ezezik, bestelako kontuak ere jorratu dituzte argazkiko lagunek.

**20 pertsonek Altzako errealitatea azaldu nahi izan dute**

### Udako jaiak banan banan

Dagoeneko hasiak dira Altza eta inguruko auzoetako jaiak. Lehendabizikoak Larratxokoak izango dira ekainaren 11etik 14era. Gero San Antonioak etorriko dira. Aurrerago San Luisak ospatuko ditugu Herreran ekainaren 20ean eta 21ean. Aurrera eginez, San Juanak Oleta auzoan ospatuko dira ekainaren 24tik 28ra. Azkenik San Martzialak ospatuko dira Altzan. Aurtengo festak ekainaren 26an abian jarriko dira eta uztailaren 2a arte iraungo dute.







